

LEIHOA ETA GELA

Mariasun LANDA ETXEBESTE

“Egia idatz ezazu eta ondorioa interes handikoa izango da, derrigorrez...”
Virginia Woolf. (1882-1941)

Adoleszentiako ene oroitzapen gehienak leihomarko batean kokatzen dira. Telebistatik ez zegoelako edo, orduak eta orduak ematen nituen leihotik zeruko pantailara begira, hango hodei arre eta hutsune urdinketan bihotza inon baino hobeto isladatzen bait zitzaidan.

Leihotik begira argitzen ziren nire gorroto eta maitasun gartsuenak, handik planeatzen nituen neska adoleszenteek hain gustokoak dituzten ohizko ihesak, aldi berean, itxura guztietako printzipeak leihopean noiz azalduko zitzaizkidan zai nengoelarik.

Leihotik begira bururatu zitzaizkidan lehenengo bertso kurtsiak eta epopeia luzeak, bukaerarik gabeko ipuinak eta nobelaren batego zertzelada traketsak, inoiz idazle izateko fantasia nigan sus-traitzen zen bitartean...

Dena den, ez nuen berriro leihoaren garrantziaz gehiegi pent-satu harik eta, Donostiara egindako bisitaldi batean, Carmen Martín Gaiten idazleari elkarrizketa bat egiteko aukera izan nuen arte, hau da, zoritxarrez, nire adoleszentzia eta leihozaletasuna urrun samar zeuden arte. “Las mujeres siempre hemos sido muy ventaneras” esan zidan orduan mesetako dama horrek, eta ateraldiak grazia egin zidan. Gaur, berak idatzitako “Desde la ventana” liburua esku artean dudala, gogora etorri zait orduan emakumea eta literatura gaiak hitzegin genuena... Carmen Martín Gaiteren eritziz, historian zehar emakumeen testuak aztertzen badira, leihoaren garrantziaz jabetu gaitzek, betidanik emakumeek asko amestu, ausnartu eta irudikatu behar izan dutelako beren leihotatik. Laburki esanda, idazle honek bere liburuan azaltzen du nola emakumeak barrutik kanpora idazten duen, kontaktzen duenaren kanpo eta barnealdean aldi berean balego bezala, leihoaren ikuspuntua soma daitekeela emakumeek egindako literaturan.

Honetaz ari garela, niri, berriro, Virginia Woolf-ek, 1929an, emakumea eta literaturaz idatzitako “Norberaren gela” saio laburra baina zoragarrian, esaten zuena datorkit burura: emakumeak, sortzeko eta literatur lanak idazteko behar-beharrezkoak dituela espazioa eta independentzia ekonomikoa, horiek direla literatura egiteko oinar-oinarrizko baldintzak. Beraz, leihoari baino norberaren gelari eta horrek suposatzen duen autonomiari begiratu zion idazle ingelesak zuhurki.

Egia da, Carmen Martín Gaiten dioen bezala, sarritan, emakumeen kasuan, idazteko bokazioa leihomarko baten bitartez sortu dela, leihoak ikusia izan gabe ikusteko aukera ematen bait du.

Gozonezkoek izan ohi duten mugitzeko, bidaiatzeko, bazterrik bazter ibiltzeko askatuna debekatua egon da askotan emakumeentzat, eta horrek, ziur asko, markatu egin du beren literatur lana. Bestalde, emakumeak, historian zehar, gizarteak ezarritako papera gainditu nahi izan duen bakoitzean, irain, sermoi, edo arbuioa besterik ez du jaso. Herri guztietako literaturaren historian agertzen zaizkigu emakume arraro, zoro edo dama bakarti batzuk, zeinak, beren leihotatik begira, inposatutako mundu hertsia, poema edo nobeletan transzenditzen saiatu bait ziren. Maiz, gizonezko baten izenaren atzean ezkutatu ziren, beren izen ona hobeto gordeko zutelakoan...

Baina, gaur egun, berriro, emakumea nolabait gizarteratu den honetan, non geratzen da leihoaren ikuspuntua? Non bere eragina? Non bere magia?... Susmoa dut, eguneko neska adoleszenteek beraiek ez dutela leihotik begira egoteko ohiturarik, ezta beharrik ere. Eta, niri behintzat, horrek ez dit pena handirik ematen. Agian, hemendik aurrera, Carmen Martín Gaiten aipatzen zuen “leiho kutsua” falta zaio emakumeak egindako literatur lanari, baina horrek ez du esan nahi emakumeak bezala idazteko oztopo guztiak gaindituak izango dituenik. Aipatutako saio labur horretan, Virginia Woolf-entzat emakume bezala idazteko gai izatea, norberaren ikuspuntuari eta errealitatea sentitzeko erari uko egin gabe idaztea izango litzateke, besteren usteak, gizonezkoen erdi-enu edo irainak kontutan hartu gabe ihardutea, jendarteko eritzira mugatu gabe idazten jarraitzea...

Eta horretarako, leihotik begira egotea ez da nahikoa, adore gehiago behar da, zeren V. Woolf-ek proposatzen diguna desafio zaila bezain ederra bait da, emakumezkoentzat zein gizonezkoentzat balio duena: norberaren egiaz idaztea.

